



# PRENTSA DOZIERA

**Etxalde idekiak eta inbentario partehartzailea**

**Euskal Herriko Laborantza Ganbararen sartze ludikoa**



**EUSKAL HERRIKO  
LABORANTZA GANBARA**

**PRENTSAITZINEKOA : Baiona, 2021eko irailaren 14a**

- Beñat Molimos eta Francis Poineau, EHLG-ren kolendakariak
- Iker Elozegi, EHLG-ren koordinatzailea
- Thomas Tchiboukdjian, animatzaile-teknikaria Agro-oihangintza sailan

Prentsa harremanak : Maritxu Inçagaray Haiçaguerre (maritxu@ehlgbai.org)

Euskal Herriko Laborantza Ganbara : 05 59 37 18 82

[www.ehlgbai.org/eu/](http://www.ehlgbai.org/eu/)  
[Facebook orria](#)

## Sar-hitza

Euskal Herriko Laborantza Ganbarak 16 urtez geroztik garatzen duen laborantza herrikoia-aren proiektua aipatzen dizuegu usu.

Bere 10 printzipioekin eta zeharkako 6 gairekin, laborantza herrikoia-aren proiektua, proiektu politiko bat da oroz gainera : laborantza-produkzioa antolatzea lurraldeen elikadura-subiranotasunaren eta laborari anitzen zerbitzura. Laborantza industrializatuaren kontra bilduak eta gehiegikeria horien ordeztu proiektu bat eraikitzeke motibatua ziren laborari-aren gogoetatik sortu zen.

Nola irudikatzen da orduan laborantza herrikoia gure inguruan ?

Euskal Herriko Laborantza Ganbarak sartze honetaz baliatu nahi du laborantza modelo hori konkretuki nolakoa den « erakusteko », gehiengoari.

Ondorioz, EHLG-k publiko zabala bi etxalde idekietara gomitatzen du irailaren 20 eta 22an. Hazkuntza eta produkzio desberdinetakoak, etxalde bakoitzak laborantza herrikoia-aren hainbat gai ilustratzen ditu bere manerara, hala nola : etxalde-aren transmitigarritasuna, banaketa, naturarekin lana, produktuen kalitatea, etab.

Beste sail batean, Euskal Herriko Laborantza Ganbarak « zuhaitz lepatuak » deitu proiektua abiatzen du eta herritar-aren parte-hartzea eskatzen du Iparraldeko zuhaitz lepatu-aren inbentario batendako.

Duela hiru urte, zuhaitz lepatu-aren Europako bigarren kolokioa egin zelarik Saran, han finkatu epe luzeko helburuetako bat etorkizunari begiratzea zen : zuhaitz lepatu-aren zaintza-aren gain, lurraldeko etxaldeetan zuhaitz lepatuak berriz lantzea.

Arbola horien babesteko behar-aren ohartaraztea akuilatu nahi dugu. Horrez gain, zuhaitz lepatu berriak sortzea eta horiek ziklo erregular eta emankorretan kudeatzea bultzatu nahi dugu, laborantza-ekoizpen-aren, bioaniztasun-aren eta paisaiak sortze-aren aldeko ekosistema sortuz.

Hau da beraz Euskal Herriko Laborantza Ganbara (EHLG) elkarteak, Akitania Berriko Natur Guneen Kontserbatorioarekin (CEN NA) eramaiten duen proiektu-aren helburua, Akitania Berria Eskualde-aren eta Euskal Hirigune Elkargo-aren laguntzarekin.

Abiapundu gisa, poster berri bat banatua izanen da Iparraldeko leku publikoetan.

## Etxalde idekiak



Irailaren 20an (astelehena) eta 22an (asteazkena), Euskal Herriko Laborantza Ganbarak bi etxalde ideki antolatzen ditu,

Bi hitzordu horiek publiko zabal bati idekitzen ditugu, EHLG-k laborantza herrikoia eta elikaduraren inguruan egiten dituen bi lan ardatz nagusi erakusteko.

Beñat Molimos eta Francis Poineau, kolehendakariak esplikatzeko dute : « Laborantza herrikoia haien etxaldeetan obratzen duten laborariekin zuzenki trukatzeko da egun hauen helburua. Egunduek publiko zabal bati proposatu nahi ditugu, gure elkartearen urtemuga ospatzeko, urtero errezebitzen dugun publikoaren gisakoa hots ! »

Etxalde baten giroan sartuz, errezebituko gaituzten laborariak beren lanbidez, ibilbidez eta hautuetaz mintzatuko zauekigu, giro goxo batean.

### ► 2021eko irailaren 20a, astelehena, 14.30 – 17.00, Itsasu **Instalazioa-transmisioa, lurralde bizi baten oinarriak**

Aroztegia etxaldearen bisita. Ardi eta xerri hazkuntzan oinarritua den etxalde ttipi honetan, laborantza aktibitatea dibertsifikatzen eta enplegua sortzen jakin dute, baratzezain bat instalatuz. Duela urte bat, bi kide berri sartu dira etxaldean erretreta hartu zuten bi laborari ordezkatzeko. Heien lekukotasunak entzuten ditugu.

*Bisitariantzat argibideak : izen-emaitea beharrezkoa, 05 59 37 18 82 zenbakira deituz irailaren 17a aitzin  
→ Ferme Aroztegia, Basaburu, 64 250 Itsasu*

### ► 2021eko irailaren 22a, asteazkena, 14.30 – 17.00, Heleta **Agro-oihangintza : Hesiakin behiak eta laboraria pozik !**

Ugo Arbelbide laborariaren etxaldearen bisita. Ugo 2019-an instalatu da, familiako etxaldean. *Blondes d'Aquitaine* arrazako behiak belarrean hazten ditu. Bere etxaldeko ateak idekiko dizkigu eta azaldu zergatik hesiak landatu dituen, joan den neguan.

*Bisitariantzat argibideak : izen-emaitea beharrezkoa, 05 59 37 18 82 zenbakira deituz irailaren 17a aitzin  
→ Eiherazabalia etxaldea, 64 640 Heleta*

Osasun egoeraren gatik, lekuak mugatuak izanen dira.

# Ipar Euskal Herriko zuhaitz lepatuen inbentario parte-hartzailea eta zuhaitzak ekoizpenean jartzea

Proiektu honen helburua zuhaitz lepatuen kokapena eta kontserbazio egoera ezagutzea da, eta ezagutzak eta egiten-jakitea ber-dinamizatzea.

## Zer da zuhaitz lepatu bat ?

Zuhaitz lepatua gehienetan zuhaitz hostotsua da, gizon-emazte goratasunean erregulariki abarratzen dena, egur et fruituak biltzeko, enborra oinarrian moztea behartua izan gabe.

## Ipar Euskal Herriko zuhaitz lepatuak

Zuhaitz lepatuak euskal paisaiaren parte dira eta laborariek moldatu dituzte, mendeetan zehar. Egurra eta kabalen bazka ekartzen dute, eta animalia eta landare-mota anitzen babeslekuak dira. Emeki-emeki, zuhaitz horiek pentze eta oihanetatik desagertzen dira ez baitira gehiago artatuak eta klimaren aldaketak mehatxatzen baititu.

Euskal Herriko Laborantza Ganbarak eta Akitania Berriko Natur Guneen Kontserbatorioak (CEN NA) bat egin dute agroekologia bertuteak dituen aspaldiko laborantza-ohitura hau egungo praktketan berriz jartzeko !

Lehen lehenik, ahantziak ditugun zuhaitz horien inbentarioa egin behar da eta bakoitzak bere esku ukaldia ekar dezake, zuhaitz lepatu bat ikusten duenean EHLG-ri seinalatuz. Horrela, etorkizuneko belaunaldiendako zuhaitz "lepatuak" zaintzen edonork lagun dezakete.

## Nola ?

Tresna numeriko bat proposatua da, nun bakoitxak bere ibilaldietan, naturan edo mendian aurkituko dituen zuhaitz lepatuak seinalatzen ahalko dituen.

**Linean den galdetegi bat da :** Bakoitzak bere behaketa eta oharrak eman ditzazke, etxetik edo/eta bere ibilaldien arabera.

Zuhaitz guziak interesgarriak dira : auzoko pentzean pusatzen ikusi gaituztenak, gure eguneroko ibilbide bazterrean aurkitzen ditugunak, Sarako oihaneko edo beste leku batzuetako arbol enblematikoak, etab.

Informazioak linean sartzeko lotura :

<https://www.tela-botanica.org/widget:cel:saisie?projet=tetards-basques>

Mugikortasun gehiago ukaiteko, galdetegian sartzen ahalko da sakelako telefonotik ere bai, posterrean agertzen den **QR CODE**-a eskanatuz gero.

Bi kasuetan, argazkiak dituzten behaketak interesgarriagoak izango dira.



Proiektuarentzat argitaratu den poster ilustratu hau tresna pedagogiko bikaina da.

Poster azpian agertzen den QR Code-ak galdetegirainoko bidea emanen du behin eskantuz gero.



### À la recherche des arbres têtards du Pays basque

Les arbres têtards font partie du paysage basque et ont été façonnés par les paysans depuis des siècles. Ils appartiennent aux espèces anciennes et vivaces. Menacés par l'abandon de leur entretien et les modifications du climat, ils disparaissent peu à peu des montagnes et des forêts. Eusko Herriko Laborantza Garbiera et le Conservatoire d'espaces naturels de Nouvelle-Aquitaine se sont associés pour remettre au goût du jour cette pratique traditionnelle afin de leur offrir une seconde jeunesse. Avez-vous un arbre têtard à signaler ? Participez à leur entretien pour les générations futures en nous les signalant au moyen de ce formulaire. Pour vous aider dans la détermination des arbres, vous pouvez télécharger l'application iHerbiter.

**Aide**  
Cet outil vous permet de partager simplement vos observations avec le réseau Tela Botanica (sous licence CC BY-SA 2.0 FR). Identifiez-vous pour retrouver et gérer vos données dans votre Carnet en ligne. Cliquez jusqu'à 20 observations avec 1000 mots et images pour enregistrer et partagez-les avec le bouton "transmettre" sous certaines conditions. Elles apparaîtront alors sur [www.tela-botanica.org](http://www.tela-botanica.org), iHerbiter, les cartes et guides photos du site. En cas de question ou pour en savoir plus, consultez iHerbiter ou contactez-nous à [cel\\_requetes@tela-botanica.org](mailto:cel_requetes@tela-botanica.org).

**Observateur**  
Bienvenue : **EHI (GB)**

**Observation**  
Geolocalisation

Trouver un lieu

Recherchez une adresse ou une ville

Relevé

Date de relevé:

Espèce (bddfx): Choisir

Certitude: Douteuse

Milieu: bois, champ, falaise, ...

Notes

<https://www.tela-botanica.org/widget:cel:saisie?projet=tetards-basques>

## Zer besterik ?

Euskal Herriko Laborantza Ganbarak bere beste eginkizunekin segitzen du, hauen artean laborarien formakuntza. Hona zein izanen diren ondoko asteetako egunaldi tekniko eta formakuntza eguneak :

### EGUNA

Irailaren 15a, asteazkena  
9.30 – 17.30, Ainiza Monjolose

Irailaren 16a, osteguna  
9.30 – 17.30, Ainiza Monjolose

Irailaren 29a, asteazkena  
14.00 – 17.00, Ainiza Monjolose

Urriaren 8a, ostirala  
9.30 – 17.30, Ainiza Monjolose

Urriaren 19a, asteartea  
9.30 – 17.30, Ainiza Monjolose

Urriaren 20a, asteazkena  
9.30 – 17.30, Ainiza Monjolose

Urriaren 21a, osteguna  
9.30 – 17.30, Ainiza Monjolose

### TGAIA

**Bere lurzorua ezagutu landare adierazleeri esker**  
*Vivea formakuntza*

**Transmisioa : etxaldearen balioa ebaluatzea eta zerga-baliabideak**  
*Vivea formakuntza*

**Pentzeen gain-ereintzaz egunerdi teknikoa**  
*Egunerdi teknikoa*

**Laborantza herrikoiaeren proiektuari buruz komunikatzen jakin**  
*Vivea formakuntza*

**Belar eta soroak sabaian idortzeko sistemaren oinarriak**  
*Vivea formakuntza*

**Irauli gabeko ereintza zuzena**  
*Vivea formakuntza*

**Ardi hazkuntzaz formakuntza zikloaren lehen eguna**  
*Vivea formakuntza*